



MIHI URDINEKO 3. SEROTIPOAREN ZIRKULAZIOA DETEKTATZEA.

(2025eko abuztua).

Joan den astelehenean, abuztuaren 25ean, Algeteko (Madril) Erreferentzia Laborategi Nazionalak baieztatu du mihi urdinaren 3. serotipoa bi ustiategitako behi-azienden lagin batzuetan dagoela, bata Bizkaian eta bestea Gipuzkoan.

Oraindik ere guztiz gomendagarria da borondatezko txertaketa egitea txertoa jaso ez duten artaldeetan. Gogorarazten da txertaketa doakoa dela abeltzaintzako ustiategientzat, eta Foru Aldundiak bere gain hartzen duela kostua, eta Abere Zerbitzu Teknikoak Kooperatiba Sozietatea enpresak egiten duela.

Behi- eta ardi-ustiategien titularrek, borondatez txertaketa-kanpaina honetan parte hartu nahi badute, ohiko telefonoen bidez jarri beharko dute harremanetan: 945 285099, 945 257411 eta 945 399242.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 27a.

ABELTZAINZA ZERBITZUA